

**“TXIKI BASKARDO” LEHIAKETA: JARRAIBIDEAK NORK BERE KABUZ HAUTAGAITZAK  
AURKEZTEKO ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO BULEGOAREN BIDEZ (AEB)**

2 PDF fitxategi aurkeztuko dira:

- Ipuina bera
- *1 eranskina* eskabide-orria, behar bezala beteta.

Prozedura obrak bide telematikoz aurkezteko:

- Sartu Getxoko Udaleko Administrazio Elektronikoko Bulegoan [HEMEN](#) sakatuz.
- Identifikatu ziurtagiri digital edo itsasontzi-joko baten bidez (egilearen edo haren ordezkari gisa diharduen norbaiten ziurtagiria izan daiteke).
- Aukeratu menuan “Nire erregistro telematikoa (ESKAERAK)” aukera.
- Jarraian zabaltzen den menuan, aukeratu “Egin eskaera” eta, ondoren, “Kultur Etxea”.
- Jarraian, inprimaki bat agertuko da pantailan, nahitaezko eremu guztiak betetzeko. Bertan, honako hauek hartu behar dira kontuan:
  - Eskaera-eredua “Orokorra” da.
  - Izartxo markatutako koadroak nahitaezkoak dira.
  - "Deskribapena" atalean, adierazi aurkezten den eleberriaren izenburua.
  - "Erantsi 1. dokumentua" atalean, betetako inprimakia (1 eranskina) igo behar da.
  - "Erantsi 2. dokumentua" atalean, eleberriaren dokumentua igo behar da, PDF formatuan. Oso garrantzitsua: aurkeztu beharreko obraren dokumentuan izenburua edo leloa baino ez da agertuko; ezin da agertu izenik, izengoitirik, posta elektronikorik edo obraren egiletza ondoriozta dezakeen beste edozein daturik; ezta PDF artxiboko metadatueta<sup>i</sup> ere.
- Nahitaezko eremu guztiak bete eta fitxategi erantsiak igo ondoren, sakatu “Egin eskaera” botoia (gaituta ez badago, nahitaezko datuak falta dira).
- Dena behar bezala egin badugu, eskabidearen erregistro-zenbaki bat lortuko dugu; gainera, egindako eskaerak kontsultatu ahal izango ditugu beti, “Kontsultak” atalean.
- Beharrezkoa da web nabigatzailean sortzen ari diren leihoak gaituta edukitzea, egiaztatzea PDF formatuan lortzeko.

---

<sup>i</sup> Metadatueta jasotako informazioa egiaztatzeko, fitxategiaren gainean eskuineko botoiaz klik egin behar da, "Propietateak" hautatu eta, ondoren, "Xehetasunak" erlaitzean, berrikusi datuak. Ezabatu nahi dugun informazio pertsonalik izanez gero, “Kendu propietateak eta informazio pertsonala” sakatuko dugu, eta, “Kendu hurrengo propietateak fitxategi honetatik” aukera hautatu ondoren, egokitzen jotzen ditugun datuak ezabatuko ditugu.